

Erria elkartzeko iru pausoak

Alderdi, 294. zk., 1974-08/10.

Euzkadiko Jaurlaritza osatzen duten politika-erakundeak dei gogoangarri bat egin berria diote Euskal Erriari. Frankismoaren amaia bixtan dagoalarik, Estadu espainolean eskubidea jabe izango deneko erri-gobernu bat sortzeko bear diren funtsezko oinarri batzuk aitatzten dituzte.

Deiak iru puntu ditu:

1. Erriak autezkunde bidez 1933an emandako Eusko Araudi bat ba da oinarri bezala; 1936an ere egitazko Frente Nazional bat osatu zen ordu artako matxinadari aurpegia emateko, eta gero, bide berean, 1945an Baionan izenpetua izan zen eusko indarren artean pakto bat. Naparroari dagokionez, berez gaurko burrukan sartu den neurri berean artzen du Eusko Araudia legez beretzako gorde zitzaion lekua.

2. Euzkadirentzat erriak nai duen demokrazia ekartzeko bear den burrukara dei egiten dute. Euskotarrak ez diren beste indarrekin batera lan egiteko bidea artzen da, baina baldintza oiek jarriaz: osatuko den gobernu onek gizonaren eskubide guzi eta osoak zainduko ditu, demokrazi osoari dagozkion beste eskubide guziak gordeko dizkio, eta Euzkadiren kultura, lege eta politika aldetik dituen nortasun osoa errespetatuko ditu. Giro ontan, galde dezaiola erriari autezkunde berezi eta aske baten bidez Estadua erregetza edo errepublika bezala eratu nai duen, Espainiako bitarteko gobernu baten garai berean Euzkadin beste bitarteko gobernu bat ontzat artuko da, eta Catalunya eta Galiziak dituzten naiei bereak dituzten eskubideak aitortuko zaizkie. Eta Estadu espainolean dagoazen politika eta sozial-presu guzientzat askatasuna eskatzen dute.

3. Izenpetzen duten politika erakundeak ba dakite Jaurlaritzan ez dagoazen indar batzuk gure errian nabari direla; ala, garrantzi aundia ematen dio bereala denon artean egin bear den elkartze oni, eta gero, aal den leen, elkartze onek agintzen duen Euzkadiko jaurlaritzaren gaurkotze bat egiteko asmoa erakusten da.

Dei onek eskatzen dituen iru pausoak aitatu eta gero, Jaurlaritza osatzen duten indarrek euskotar guziei dei egiten die, bai Euzkadin jaio direnei, eta baita beste lurretatik etorri eta gurean bizi eta lanean ari direnei ere, bakoitzak bere erantzukizuna bere bizkar artu dezan demokraziak eskatzen dituen eskubide guzien alde.